

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2023ko apirilaren 3tik 7rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROGUNEA: PMIak



Datuaren analisia

MI konposatuak elkarren segidako hirugarren hazkundearekin amaitu zuen lehenengo hiruhilekoa, eta ailarik altuenean 2022ko maiatzetik. 52tik 53,7ra egin zuen gora martxoan (atariko datua: 54,1). Herrialdeka a otsailarekin alderatuta, jarduera-maila handiagoak izan zituzten guztiek. Espainia izan zen martxoan naitza onenak izan zituen herrialdea, marjina handiarekin, ia urte eta erdian izandako erritmorik zkarrenean hazi baitzen. Italiak ere hedapen sendoa izan zuen, hamasei hiletan izandako bizkorrena. Uroguneko bi ekonomiarik boteretsuenek, Alemaniak eta Frantziak, hobera egin zuten, eta azken hamar letako maximoetan kokatu ziren. Hala ere, atzean geratu ziren aztertutako gainerako herrialdeekin deratuta.

sagaiak banan-banan hartuta, manufakturen PMIa 47,3 puntura jaitsi zen martxoan (atariko datua: 47,1), irreko hileko 48,5etik, eta irakurketarik kaskarrena izan zuen lau hiletan. S&P Markiten arabera, Euroguneko anufakturen sektoreak zailtasunak ditu oraindik, eta fabriketan produktuen eskariak behera egin zuen amaikagarren hilabetez jarraian, bizi-kostuaren igoerak, diru-politika zorrotzagoak, stockak murrizteko joera daketak eta bezeroen konfiantzaren galerak eraginda. Aztertutako herrialdeen artean, manufaktura-rueraren daturik onenak Greziak eta Espainiak izan zituzten. Alemaniak eta Frantziak, berriz, azken 34 eta hiletako irakurketarik kaskarrenak izan zituzten, hurrenez hurren.


Zerbitzuen PMIak izan zuen eraginik handiena martxoko gorakada bizkorrean. Adierazleak nabarmen egin zen gora martxoan, 55eraino, eta otsaileko 52,7ko datua gainditu zuen. Bada, hazkunde-erritmorik zkarrena izan zuen 2022ko maiatzetik, nahiz eta 55,6ra iristea espero zen.

Adierazlearen azalpena

lanufakturen/Zerbitzuen PMI indizeak hileroko erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri lanufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, au da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, sate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; ortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

RRESUMA BATUA: PMIak



Datuaren analisia

MI konposatuak 53,1etik 52,2ra egin zuen behera martxoan, atariko irakurketarekin bat etorritik.

anufakturen PMIa uzurtze-fasean mantendu zen. Zehazki, 1,4 puntu egin zuen behera aurreko hilabetetik, 7,9 punturaino (atarikoa: 48).

erbitzuen PMIa, bestalde, 52,9 puntura jaitsi zen martxoko azken irakurketan, otsaileko 53,5etik, eta erbitzuen eremuan mantendu zen. Datu hori hilaren erdialdeko atariko datuaren (52,8 puntu) oso antzekoa izan zen, analistek espero zuten moduan. Eskari berrien gorakada iraunkorrak babestu zuen adierazlea, enpresen eta kontsumitzaileen konfiantzak joan den udazkenean izandako minimoetatik hobera egin zuen martxoan. Inkestak erakutsitakoaren arabera, esportazio-salmentek bultzada gehigarria eman zioten erbitzuen sektoreari martxoan, atzerriko eskaera berriek zortzi urte eta erdian izandako azkunderik handiena izan baitzuten. Nolanahi ere, lan-merkatuaren tentsioak enpresen ahalmena mugatu zuen berriro zerbitzuen sektore osoan, eta soldaten presioak handitu zituen beste hilabete batez; izan ere, erbitzuen minimo historikoetan, oso handiak dira oraindik.

Adierazlearen azalpena

anufakturen/Zerbitzuen PMI indizeak hileroko eraketan profesionalen eta enpresetako exekutiboekin lanfaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, eta, beraz, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, beste baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; 50etik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: ISM



Datuaren analisia

anufakturen sektorearen PMIak 47,7tik 46,3ra egin zuen behera martxoan (analistek aurreikusitakoa: 47,5), a uzkuratzen-eremuan mantendu zen bosgarren hilabetez jarraian, ia hiru urtetan izandako mailarik axuenean. Inkestaren arabera, maileguen kostuen handitzeak kreditu bidez erosten diren ondasunen skaria hoztu du, Erreserba Federala inflazio handiaren aurka borrokatzen ari den honetan. ISM inkestaren skari berrien azpi-indizea 44,3 puntura jaitsi zen joan den hilean, otsaileko 47,0tik. Eskarien zorroak behera jiten jarraitu zuen, eskariaren beherakada islatuz, baina hornidura-kateek hobera egin zuten. Hornitzaileen 13regen indizea 44,8 puntura jaitsi zen otsaileko 45,2tik. 50etik beherako irakurketak fabrikei egindako 13regen bizkortzea adierazten du. Eskaintza hobetzearekin batera, fabriketako inflazioa atzera egiten ari da. abrikatzaileek ordaindutako prezioen ISM indizea 49,ra jaitsi zen otsaileko 51,3tik.

zerbitzuen ISMak, manufakturen indizearekin gertatu ez bezala, gora egiten jarraitu zuen martxoan, EBetako bankuen sektoreak bizitako konfiantza-krisia gorabehera. Hala ere, adierazleak moteltzera egin zen urteko hirugarren hilabetean, 51,2 puntura, otsaileko 55,1 puntuen aldean. Eta oraindik hedapen-eremuan badago ere (azken 34 asteetatik 33tan eutsi dio bertan), analistek jaitsiera txikiagoa izatea espero dute, 54,5 punturainokoa. Inkestaren arabera, irakurketak zerbitzuen sektoreak azken hiru hilabetetako azkunderik motelena izan zuela erakutsi zuen. Izan ere, eskaria eta enplegua hoztu egin ziren, ekoizpen-eremuak eta logistikak hobera egin zuten eta prezioen gaineko presioak 2020ko irailetik ikusten ez zen mailarik baxuenera jaitsi ziren.

Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hileroko egiten diren inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. abrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



Datuaren analisia

Enpleguaren datuek martxoan apur bat behera egin bazuten ere, Estatu Batuetako lan-merkatua sendoa gogela adierazi zuen martxoko txostenak, ekonomiaren dezelerazioari erresistentzia erakutsiz.

EBetako ekonomiak 236.000 lanpostu sortu zituen, espero zen moduan (240.000 aurreikusi ziren), otsaileko datuak gorantz berrikusi ondoren, 326.000 lanpostura, hain zuzen ere.

Orain arte, langabezia-tasa % 3,5ean kokatu zen, otsailean baino hamarren bat beherago (urtarrileko % 3,4a izan zela, baina azken 53 urteetako tasarik baxuena izan zen).


Bestalde, txostenaren arabera betiere, badirudi inflazioaren presioak baretzen hasi direla. Soldata % 4,2 igo zen azken 12 hilabeteetan, otsailean aurreko urtearen aldean izandako % 4,6ko igoerarekin alderatuta. Hala ere, hileko datuei begiratuta, soldatak % 0,3 igo ziren otsailetik martxora, eta % 0,2 urtarriletik otsailera.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua aztertzen ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

XINA: CAIXIN PMIak



Datuaren analisisia

ixinen arabera, manufakturen industriaren PMIa egonkortu egin zen martxoan, baina geldialdi handi bat n zuen otsailean izandako susperraldiaren ondoren, orduan manufakturen adierazleak azken zortzi etako hedapen-erritmorik altuena izan baitzuen. Indizea otsaileko 51,6 puntuetatik 50era jaitsi zen irtxoan. Caixinen datuen arabera, uzurtze-eremua saihestea lortu bazuen ere (urtarrilera arte, sei abetez jarraian egon zen eremu horretan), PMI indizea analisten aurreikuspenen oso azpitik kokatu zen, erazlea are gehiago haziko zela aurreikusi baitzuten, 51,7 punturaino.

manufakturen indizeak ez bezala, Caixinen zerbitzuen PMIak gora egin zuen ustekabean, 57,8 puntutan etatu baitzen, otsaileko 55,0 puntuetatik, eta irakurketarik altuena izan zuen 2020ko azarotik. Analistek, lea, aurreko hileko erregistro bera errepikatzea espero zuten. Martxoko inkestaren arabera, eskari berrien erlekuaren hazkunde handiak hauspotu zuen adierazle hori, Covid-19ari aurre egiteko neurriak berriki aitu ondoren.


erlekuaren guztiarekin, PMI konposatua 54,5era igo zen, aurreko hileko 54,2tik.

Adierazlearen azalpena

manufakturen/Zerbitzuen PMI indizeak hileroko erostaketen profesionalen eta enpresetako exekutiboek manufakturen/zerbitzuen sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, eta, beraz, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, beste baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

APONIA: PMIak



Datuaren analisisa

inufakturen PMIa gorantz berrikusi zen atariko kalkulutik, eta 49,2an kokatu zen (datuak urtebetean ndako lehen hobekuntza). Hala ere, 50 puntuen azpitik kokatu zen, herrialdeko ekonomia oraindik kurtze-eremuan dagoela adierazten duena. Izan ere, mundu-mailako ahultasunaren eragina handiagoa da onomia esportatzaileentzat, hala nola Japoniakoarentzat.

zerbitzuen PMIa azken bederlatzi urtetako erritmorik azkarrenean hazi zen martxoan, COVID-19aren krisiaren dorengo susperraldia indarra hartzen eta neurri batean manufaktura sektorearen ahultasuna orekatzen ari a iradokitzen duena. Zerbitzuen adierazlearen behin betiko irakurketa 55era igo zen joan den hilabetean, aileko 54,0etik, 2013ko urritik izan duen hedapen-erritmo bizkorrenarekin. Halaber, 54,2ko atariko kurketa baino handiagoa izan zen, eta hedapen-eremuan mantendu zen zazpigarren hilabetez jarraian. VID-19aren pandemiaren eragin txikiagoari eta bezeroen konfiantza handiagoari esker, ekoizpenak eta aerek gora egin zuten. Eskari berrien eta kanpo-eskariaren azpi-indizeek zazpigarren hilabetez jarraian n zuten gora, 2019ko otsailetik eta 2022ko abendutik izandako erritmorik azkarrenean, hurrenez hurren.

inufakturen eta zerbitzuen datuak bateratzen dituen PMI konposatua erritmorik bizkorrenean hazi zen 22ko ekainetik. Adierazlea 52,9ra igo zen martxoan (atariko irakurketa: 51,9), aurreko hileko 51,1etik, eta, raz, hiru hilabetez jarraian egon da 50 puntuen gainetik.

Adierazlearen azalpena

anufakturen/Zerbitzuen PMI indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei anufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen ktorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, u da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, ate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi i; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Epea	Aurreik.
04/10	Japonia	BoP oinarrizko merkataritza balantza	Ots.	--
04/11	Txina	Urte arteko KPIa	Mar.	% 1.0
04/11	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	Api.	--
04/11	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	Ots.	--
04/11	Alemania	MoM handizkako prezioen indizea	Mar.	--
04/12	Estatu Batuak	Hileko KPIa	Mar.	% 0.3
04/12	Estatu Batuak	EBZren bileraren aktak	44621	--
04/13	Erresuma Batua	Hileko BPGd-a	Ots.	--
04/13	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	Ots.	--
04/13	Erresuma Batua	GBP/MM Balantza komertzial ikusgarria	Ots.	--
04/13	Alemania	MoM EBko KPI harmonizatua	Mar. F	--
04/13	Italia	Hileko industria-ekoizpena	Ots.	--
04/13	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	Ots.	--
04/13	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	Api. 8	--
04/13	Txina	Balantza komertziala	Mar.	\$42.00b
04/14	Frantzia	MoM EBko KPI harmonizatua	Mar. F	--
04/14	Espainia	MoM EBko KPI harmonizatua	Mar. F	--
04/14	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratua	Mar.	-% 0.4
04/14	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	Mar.	% 0.3
04/14	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	Api. P	--
04/14	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	Api. P	--
04/14	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	Api. P	--

ERRENTA ALDAKORRA

an den astean, burtsek saldo mistoarekin amaitu zuten astea Europan, baina u negatibo samarrarekin oro har (Eurostoxx 50 -% 0,13). Halaber, balantzea lakorra izan zen AEBetan (Dow Jones +% 0,63, Nasdaq -% 0,9), baita Asian (Nikkei -% 1,87, Shanghai +% 1,67). Bankuen krisiak protagonismoa galdu zen, banku zentralen eta hazkunde ekonomikoaren mesedetan. Gainera, EE+ erakundeak ustekabeen iragarritako petrolio gordinaren ekoizpenaren irrizketak lehengaiaren prezioa gorantz bultzatu zuen eta tentsio inflazionista rriak azalera zitu. Horren ondorioz, inbertsiogileek diru-politiken errento mugimenduei buruzko aurreikuspenen inguruan hausnartu behar izan zuten berriro, datu makroek zalantzak sortu zituzten testuinguru batean, AEBetan batez ere. Horrez gain, lanpostuen eskaintzaren erregistroa uste ino ahulagoa izan zen, manufakturen ISMa (uzkurtze-eremuan) ia hiru etan izandako mailarik baxuenera jaitsi zen, zerbitzuen ISMa moteldu egin zen eta enpleguaren ADPa uste baino txikiagoa izan zen. Txinan, Caixinen inufakturen PMLa ahuldu egin zen, eta uzkurtze-eremutik gertu egon zen. Zerbitzuen indizeak, ordea, gorantz egin zuten ustekabeen. Europan, inufakturen sektoreko jardueraren adierazle aurreratuak uzkurtze-eremuan sartu ziren, baina ez bakarrik Eurogunean, baita Erresuma Batuen ere. Zuzenbide zitik, zerbitzuen PMLak hedapen-eremuan mantendu ziren, eta hobera egin zuten Eurogunean. Aurreikuspen ekonomikoaren gaineko kezka, AEBetako inonominaren moteltze zantzuekiko sentsibilitate handiagoarekin batera, inbertsiogileen gogoan nabaritu zen, eta zuhurrago jokatu zuten egunotan. Lanahia ere, ostiraletan AEBetan argitaratutako enpleguaren txostenaren arabera, kontratazio-maila pixka bat moteldu zen, baina erregistroak espero zaren ildotik joan ziren, eta berriro ere, lan-merkatuak dezelerazio ekonomikoaren aurkako erresistentzia erakutsi zuen. Aste Santuko jaiaren ondorioz, Europako eta AEBetako merkatuak itxita egon ziren asteko azken egunetan.

ERRENTA FINKOIA:

Aurreikusitakoa baino moteltze ekonomiko handiagoa izateko beldurrak, baina baina datu makro ahulagoen ondoren, inbertsiogileen arreta piztu zuen, eta petrolioaren prezioaren igoerak eragin zuen zorraren interesen hasierako erakada ezabatu zuen. Ostegunean, FEDek maiatzaren 3an egingo duen errenta tasa igotzeko aukera % 49koa dela kalkulatu zuen.

Errenta bonuaren errentagarritasuna -11 op jaitsi zen, % 2,18ra, eta periferikoek errenta-errenta handitu zituzten Alemaniarekin. AEBetan, epe bereko treasuryak -8 op egin zuen behera, % 3,39ra. Kredituak, bestalde, spread-ak handitu zituzten Europan.

BISAK / LEHENGAIAK:

Errenta merkatuan, AEBetan argitaratutako datu txarrek dolarra zigortu zuten, baina mugimendu hori oso handia izan ez bazen ere, narriadura progresiboa izan zuen astean. Euroak etekina ateratzen zion egoera horri eta 1,09 \$-tik gorari zen berriro eroso. Hala ere, Euroguneako dibisak balio pixka bat galdu zuten liberaren aurrean. Lehengaiak, petrolioaren prezioa +% 7,14 igo zen, LPEE+ erakundeak petrolioaren ekoizpenaren murrizketa bat iragarritzen zuten ezustean. Izan ere, kartelak joan den urtearen amaieratik aurrerantzat ekoizpenaren beharpena igotzea erabaki zuen. Aurreikuspenen arabera, eguneko milioi bat petrolio upel baino gehiago murriztuko dira, eta aroaz geroztik murriztutako bi milioi upelei gehituko zaizkizkiz. Errusiak, inbertsiogileren merkatutik beste 500.000 upel gehiago kentzeko mehatxua egin du. Urreak babes-aktibo gisa jardun zuen ekonomiari buruzko gero eta handiagoa izan zuten merkatuetan, eta bere prezioa +% 1,96 igo zen.

Indizeak	2023/04/07	Aldaketa astean	Ald. 2023
IBEX	9.312,30	% 0,86	%13,16
EUROSTOXX 50	4.309,45	-% 0,13	%13,60
ALEMANIA	15.597,89	-% 0,20	%12,02
INGALATERRA	7.741,56	% 1,44	% 3,89
FRANTZIA	7.324,75	% 0,03	%13,15
ITALIA	29.396,37	% 0,28	%14,29
S&P 500	4.105,02	-% 0,10	% 6,92
DOW JONES	33.485,29	% 0,63	% 1,02
NASDAQ 100	13.062,60	-% 0,90	%19,40
NIKKEI 225	27.518,31	-% 1,87	% 5,46
SHANGHAI	3.327,65	% 1,67	% 7,72
MSCI WORLD	2.790,38	-% 0,04	% 7,21
MSCI GORAKORRAK	987,07	-% 0,32	% 3,21

Gobernuen tasak	2023/04/07	Aldaketa Astean	Ald. 2023
2 urte			
ALEMANIA	2,55	-13	-21
ESPAINIA	2,81	-11	-12
AEB	3,98	-4	-45
5 urte			
ALEMANIA	2,18	-13	-40
ESPAINIA	2,84	-10	-32
10 urte			
ALEMANIA	2,18	-11	-39
ESPAINIA	3,23	-8	-44
AEB	3,39	-8	-48

Kreditu-spreada (op)	2023/04/07	Aldaketa Astean	Ald. 2023
ITRX EUROPE (5A)	88,16	4	-2
ITRX EUR XOVER	458,89	23	-15

Dibisak	2023/04/07	Aldaketa Astean	Ald. 2023
\$/€	1,0905	% 0,61	% 1,87
Yena/€	144,12	% 0,11	% 2,65
gpb/€	0,88	-% 0,10	-% 0,80

Lehengaiak	2023/04/07	Aldaketa Astean	Ald. 2023
BRENT	85,38	% 7,14	% 0,48
URREA	2.007,91	% 1,96	%10,08

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.